



2023ko martxoan Donostiako Udalak Partaidetzazko Aurrekontuen prozesua abiatu du, herritarrek zein elkarteek beraien proposamenak egin eta ondoren herritarren bozka bidez lehenetsitako egitasmoak 2024ko eta 2025eko udal aurrekontuetan jaso daitezten.

Prozesu honen bitartez, herritarrek euren auzoaren eta Donostiaren beharrei buruz hausnartu ahal izango dute eta arlo desberdinetan hobekuntzak proposatu ahal izango dituzte. Udalak proposamenen bideragarritasuna aztertuko du eta herri bozketa bidez lehenetsiak ezarriko dira.

2024rako eta 2025 urteetarako guztira Udalak 3.000.000 € bideratuko ditu kopuru horretaraino iristen diren proposamenak udal aurrekontuan sartzeko eta gauzatzeko.

Ekialdeko Barrutiari dagokionez, Barrutiko Batzarrak erabaki du urte horietako bere aurrekontuaren %50a bideratuko duela prozesu honetarako.

Herritarrek zuzenean prozesuaren hiru unetan izango dira protagonista:

- **Bilera irekiak** hiriko 8 gunetan (martxoaren 6tik 18ra): Lehen fase honen helburua prozesua ezagutaraztea da eta baita auzokideen arteko harremanak sustatzea, dituzten beharrak eta ideiak elkarrekin partekatu eta ikuspuntu edo interes desberdinak biltzen dituzten proposamen osoagoak lortzea.
- **Proposamenak egitea** (martxoaren 20tik 31ra): online edo era presentzialean Herri Partaidetza Zerbitzuaren bulegoan egin ahal izango da.
- **Herritarrek botoa ematea** (urriaren 16tik 29ra): online edo era presentzialean Herri Partaidetza Zerbitzuaren bulegoan egin ahal izango da.

**PROZESUAREN FASEAK****1. BILERAK (2023ko martxoaren 6tik 18ra)**

Bileren helburua prozesua aurkeztea izango da, herritarrei parte hartzeko argibideak eman eta baldintzak zeintzuk diren azalduz. Gainera, prozesuaren girotze fase honetan, auzokideen artean nabarmenak diren beharren inguruan aritu eta proposamenak partekatzen hasteko denbora egongo da, auzokideen arteko harremanak bultzatu eta ikuspuntu edo interes desberdinak jasotzen dituen proposamen osatuagoak lortze aldera.

Bileren egutegia honako hau da:

- **Antiguo / Aiete / Berio / Ibaeta:** Martxoak 6, astelehena, 19:00tan -Antigua-Luberri BHI
- **Añorga :** Martxoak 7, asteartea, 19:00tan - Musseum Cemento Rezola (Añorga hiribidea, 36)
- **Amara Berri / Morlans / Erribera:** Martxoak 9, osteguna, 19:00tan - Ernest Lluch Kultur etxea (Anoeta pasealekua, 7)
- **Parte Zaharra / Erdigunea / Amara:** Martxoak 13, astelehena, 19:00tan - Udaletxeko Udalbatza (Ijentea, 1)
- **Gros / Egia / Ulia:** Martxoak 14, asteartea, 19:00tan - Okendo Kultur Etxea (NafarrOa etorbidea, 7)
- **Altza / Inxaurren / Bidebieta:** Martxoak 15, asteazkena, 19:00tan Kontadores (Pasai San Pedro hiribidea, 13)
- **Loiola / Txomin-Enea / Martutene:** Martxoak 16, osteguna, 19:00tan -Loiola Kultur Etxea (Aralar Mendilerroaren kalea, 17)
- **Zubieta:** Martxoak 18, larunbata, 12:00tan - Kaxkape (Herriko plaza, 4)

Bileretan ez dira proposamenak jasoko, baizik eta prozesuaren webgunearen bidez proposamenak nola bideratu azalduko da.



2. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO FASEA (martxoaren 20etik 31ra)

Norbanakoek nahiz elkarteek egin ahal izango dituzte proposamenak, ondorengo baldintzak betetzen badituzte:

- **16 urte baino gehiago** izatea. Ez da beharrezkoa izango hirian bizitza, baina harekin harremana izanez gero, harreman hori zein den adieraztea eskatuko da (Donostian bizi, ikasi, lana egin, bizitza soziala egin, etxebizitza bat izan edo negozio bat duen).

- **Elkartea bada, Entitateen Udal Erregistroan inskribatuta** egon beharko du.

Proposamenak aurkezteko fasean parte hartzeko bide bakarra on-line izango da, udal webgunean www.donostia.eus/partaidetzazkourrekontuak helbidepean berariaz sortu den gunean. Proposamenak egiteko laguntza behar izanez gero, modu presentzialean eskainiko da aukera hori Herri Partaidetzaren bulegoan. Easo kalea 43, 1 solairua, eskubia.

Proposamen bat egiteko, pertsona edo elkarte guztiek haien burua identifikatu beharko dute eta proposamenaren izenburua sartu behar izango dute; zer hobetu nahi duten, non eta nola egingo luketen adieraziz. Zehaztasunez bete beharreko eremuak izango dira.

Pertsona eta elkarte guztiek nahi adina proposamen egiteko aukera izango dute baina fitxa bakoitzean proposamen bakarra jasoko da.

Iraingarriak diren edo errespetuaren eta giza eskubideen kontrakoak diren proposamenak baztertu egingo dira.

Udalak antzeko proposamenak aurkeztu dituzten pertsonari edo elkartei hauek bateratzea proposatuko die.

Informazio gehiago jaso eta zalantzak argitzeko (ez proposamenak egiteko, hauek bakarrik Online plataformatik egin baitaitezke) udala_partaidetza@donostia.eus korreoa edo 943481356 telefonoa erabili daitezke (azken kasu honetan 09:00 eta 14:00ak artean)



Proposamenak **botoa emateko fasera pasatzeko baldintzak** honakoak dira:

- Udal eskumenekoak izatea.
- Udal politika orokorrarekin kontraesanean ez egotea.
- Interes publikokoa izatea.
- Inbertsioa izango den proiektua izatea.
- Dagokion urtean exekutatu ahal izatea.
- Partaidetza prozesu baten emaitza ez ezabatzea edo onartua dagoen udal plan baten kontra ez joatea.
- Hurrengo aurrekontuak konpromisoan ez jartzea.
- Bideragarritasun azterketa gainditzea.
- Gehienez 300.000 euroko inbertsioa eragitea.

3. AZTERKETA FASEA (2023ko apiriletik urrira)

Partaidetza zerbitzuak proposamen bakoitza aztertuko du, eta beharrezkoa bada proposatzaileekin harremanetan jarriko da: antzeko proposamenak aurkeztu dituzten pertsonen edo elkarteen hauek bateratzea proposatuko litzaieke. Fase honetan jasotako proposamenen gaineko bideragarritasuna aztertuko du Udalak: proposamen bakoitzaren gaiaren arabera dagokion departamentuari esleituko zaio eta berau izango da aurreko baldintzak betetzen dituen aztertuko duena.

4. PROPOSAMENAK ARGITARATZEA: 2023ko urriak 9

Dagozkien arlo eta departamentuek barne azterketa egin ostean, botoa jaso dezaketen proposamenak eta botoa jasotzerik ez dutenak argitaratuko dira, proposatzaileek zein herritarrek proposamen bakoitzaren egoera ezagutzeko aukera izan dezaten.

Proposamenak lurraldeka eta gaika antolatuko dira; proposamen kontsulta azkarragoa izateko bi aldagaiak erabili ahal izango dira, herritarrek dituzten interesen arabera izan dadin.



5. PROPOSAMENAK LEHENESTEKO FASEA: BOTO EMATEA (2023ko urriaren 16tik 29ra)

Parte hartzeko baldintzak honakoak izango dira:

- Pertsona fisikoak izatea.
- Bozkatzeko unean, 16 urte baino gehiago izatea.
- **Donostian erroldatuta egotea.**

Lehenesteko fasean parte hartzeko bi bide egongo dira:

- Online Lineakoa, www.donostia.eus/partaidetzazkourrekontuak berariaz sortutako gunearen bitartez egingo dena (izaera unibertsala, irisgarria, anonimoa eta sekretua izango du),
- Presentziala, Herri Partaidetzaren bulegoan, Easo kalea 43, 1. solairua eskubia.

Proposamen bakoitzari botaziorako kode bat esleituko zaio eta **herritar bakoitzak bost proposamenei eman beharko die botoa.**

6. EMAITZAK ARGITARATZEA (2023ko urriaren 30etik aurrera)

Herritarren botoen emaitzei erreparatuta, lehentasuna duten proposamenen zerrenda osatuko da. Zerrendako lehenengo proposamena boto gehien jaso dituen izango da eta azkena, berriz, boto gutxien jaso dituen izango da.

Programa honetarako ezarritako diru kopurua aintzat hartuta (1.500.000€ 2024rako eta beste horrenbeste 2025erako) erabakiko da zein proposamen sartuko diren aurrekontuan.

7. HAUTATUTAKO PROIEKTUEN SEGIMENDUA (2023 azarotik aurrera)

Herri Partaidetza zerbitzuaren webgunean ikus ahal izango dira udal aurrekontuan sartuko diren proiektuak. Bertan, proiektuen egoeraren segimendua egin ahal izango da, erabat gauzatzen diren arte.

8. EBALUAZIOA

Partaidetzazko aurrekontuen prozesua Herri Partaidetza zerbitzuko taldeak ez ezik, prozesuan arituko diren udaleko hainbat departamentuetako



PARTAIDETZAZKO AURREKONTUAK 2023

zuk egiten duzu donostia

arduradunek ere baloratuko dute, modu jarraituan. Parte hartu duten hainbat herritarrekin ere ebaluazioa egitea aurreikusten da prozedura baloratzeko.